

18. ORDENANTZA FISKALA, HIRI-GARRAIO PUBLIKOAREN ZERBITZUAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak Hiri-Garraio Publikoaren Zerbitzua emateagatik tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

II. ZERGAGAIA

2. ARTIKULUA

Zergapetzen den egitatea hiri barruko garraio publikoaren zerbitzua ematea izango da.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

Tasa honen subjektu pasiboak, zergadunak alegia, Zergei buruzko Bizkaiko Foru Arau Orokorraren 34. artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoak edo juridikoak eta entitateak izango dira, betiere Ordenantza honetan araututako Udal Zerbitzuaren onuradun edo eraginpeko direnean.

IV. ZERGA OINARRIA

4. ARTIKULUA

Zerga oinarria zerbitzuaren benetako kostua edo aurreikusi daitekeen kostua izango da. Kontuan hartuko dira zerbitzu edo jardueraren kostu osoan eragiten duten gastu zuzen eta zeharkakoak, bai eta gastu finantzarioak eta ibilgetuaren amortizazioa ere; egoki bada, tasa ordaintzea eskatzen duen zerbitzu edo jarduera modu egokian ematea edo egitea bermatuko duten gastuak ere kontuan hartuko dira.

V. ZERGA KUOTA

5. ARTIKULUA

Zerga-kuota finkatzeko, Ordenantzaren eranskinean azaldutako tarifak aplikatuko dira.

VI. SORTZAPENA

6. ARTIKULUA

Egitate ezargarria den zerbitzua ematen hasten denean Tasa eta ordaintzeko beharra sortzen dira.



Ondorio hauetarako, zerbitzua hasitzat joko da zerbitzuaren eskaria aurkezten den egunean.

VII. KUDEAKETA, LIKIDAZIOA ETA SARRERA

7. ARTIKULUA

Zerbitzua ematen den unean ordainduko da tasa. Hala ere, eskaria jasotzen den unean ordaintzea eskatu dezake Administrazioak.

8. ARTIKULUA

Ogasun eta Ondare Sailak edo zerbitzua kudeatzen duen erakunde autonomiadunak edo sozietateak likidatu edo bilduko du tasa.

9. ARTIKULUA

Ordenantza honek arautzen ez dituen kasuetan, Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzaren gaineko Ordenantza Fiskal Nagusia aplikatuko da.

VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. ARTIKULUA

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 196. artikuluan eta ondorengoetan xedatuaren arabera sailkatuko dira zergei buruzko arau-hausteak, bai eta, hala dagokionean, bidezko diren zehapenak ezarri ere.

IX. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

X. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2009ko apirilaren 29an izandako Osoko Bilkuran ezarri eta hasieran onartu du Udalbatza Osoak, eta aplikagarri diren izapide eta epe legalak beterik, behin betiko onarpenaren ondoren sortuko ditu ondorioak eta indarrean iraungo du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte, B.A.O.n argitaratuta eta hurrengo egunetik aurrera. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

**ERANSKINA****TARIFAK**

	<u>DIRUTAN</u>	<u>CREDITRANS</u>
TXARTELAREN PREZIOA IBILBIDE OSOAN	1,10 €	0,90 €
TXARTELAREN PREZIOA IBILBIDE ERDIAN	0,55 €	0,45 €
MARTIARTUKO DORREA / ERANDIO GOIKOA	0,55 €	0,45 €
ERANDIO GOIKOA / ASTRABUDUA	0,55 €	0,45 €
ENEKURI / ERANDIO GOIKOA	0,55 €	0,45 €
ERANDIO GOIKOA / ALTZAGA	0,55 €	0,45 €

GIZATRANS TXARTELA DUTENENTZAT, TARIFA BERA IBILBIDE ERDIAN ETA OSOAN..... 0,30 €